BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3601

AGINDUA, 2014ko uztailaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Iruraiz-Gaunako (Araba) «Geroa Eskola-Escuela Libre» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Hezkuntza Bereziko unitate bat ireki eta abian jartzeko baimena emateko dena.

Hezkuntza Bereziko gela ireki bat zabaldu eta abian jartzeko eskatuz Iruraiz-Gaunako (Araba) «Geroa Eskola-Escuela Libre» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedientea aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek izan dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 1998ko uztailaren 30eko Agindua, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko dena (abuztuaren 31ko EHAA), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Segidan zehazten den ikastetxeari 2014-2015 ikasturtetik aurrera Hezkuntza Bereziko gela ireki bat zabaldu eta abian jartzeko baimena ematen zaio:

Kode-zenbakia: 01006794

Izen espezifikoa: «Geroa Eskola-Escuela Libre»

Titularra: Asociación Cultural Nuevo Hilo de Oro-Urrezko Hari Berria

Helbidea: Geltokia 33

Udalerria: Iruraiz-Gauna

Lurralde historikoa: Araba

Baimena: Hezkuntza Bereziko gela ireki 1.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 2 unitate, 50 ikaspostu.

– Lehen Hezkuntza: 3 unitate, 60 ikaspostu.

– Hezkuntza Berezia: gela ireki 1.

2. artikulua.- Indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateko irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.- Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.